

BILBO. Hitzaldia: "EEBBetan dauden bost preso kubatarrak: bidegabekeriaz betetako 12 urte" Hizlariak: Olga Salanueva eta Adriana Pérez, Bost presoen biren emazteak. Azaroak 2, asteartea, 19:30etan. La Bolsa zentroan. Pelota, 5 (Alde Zaharra, Bilbo)

Azaroaren 2an, asteartea, Olga Salanueva eta Adriana Pérez Euskadin egongo dira. René González-en eta Gerardo Hernández-en emazteak dira, EEBBetan orain dela 12 urte bidegabez espetxeratutako bost kubatarren biren emazteak, hain zuzen ere.

Egun horretan, 16:30etan, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko talde politikoen aurrean beraien senide presoen egoera azalduko dute. Eta egun berean, 19:30etan, La Bolsa gizarte-etxean azalduko dute kasua, Pelota kaleko 5.zenbakian, Bilboko Alde Zaharrean. Hitzaldiak “EEBBetan dauden bost preso kubatarrak: bidegabekeriaz betetako 12 urte” izenburua izango du.

Olga Salanueva eta Adriana Pérez-en bidaia, Euskadi- Cubak (Kubarekiko laguntasuna lantzen duen elkartea), Sierra Maestrak (Euskal Herrian bizi diren kubatarren elkartea) eta Komite Internazionalistak babestuta dago.

Kubatar gobernua presoen askapenean pausu garrantzitsuak ematen ari da, eta komunikabideak etengabe prozesu honen berri ematen ari diren bitartean, Bosten kasu bidegabeak, nazioarteko prentsan isilean gordeta jarraitzen du. Honengatik, goian aipatutako elkarteek, eskaera zehatza egin diete komunikabideei, kasu honi estaldura emateko.

2009. urtean, 10 Nobel saridunek, Obamari zuzendatuko antzeko eskaera bat burutu zuten. Rigoberta Menchú, Günter Grass, Wole Soyinka, José Saramago, Dario Fo, Nadine Gordimer, Adolfo Pérez Esquivel, José Ramón Horta, Mairead Corrigan Maguire eta Zhores Alferov izan

ziren.

Gaur egun, Danny Glover, Susan Sarandon, Martin Sheen edota Sean Penn buru dituen nazioarteko kanpaina batek gizon hauen errugabetasuna eskatzen du, beraien emakumeek beraiek bisitatzeko duten ezintasuna salatzen du, eta Obama presidenteari beraien askapena eskatzen die.

Duela gutxi, Amnistía Internacional-ak, Bosten kasuaren berrikusketa eskatu die estatubatuar agintariei, epaiketa prozesuan eman ziren era guztietako irregulartasunengatik.

Gertaerak berrikus ditzagun: “Bostak” Miamiko eskuin- muturreko taldeetan inflitratuta zeuden, Kubako herritar eta instalazioen kontra prestatzen zeuden ekintza terroristen planak monitoreatzen. Lortutako frogak FBI-ari eman zizkieten, FBI-ak, talde terrorista hauen kontra jardun zezan. Ezer ez egiteaz aparte, 1998.urtean estatubatuar poliziak Bostak atxilotu zituen. Miamin, era guztietako irregulartasunez, presioez eta zinpekoari mehatxuz beteriko epai baten ondoren, eta lintxamendu mediatikoaren ondoren, zigor luzeetara kondenatu zituzten (beraien arteko bat, bi betiko kartzela- zigorretara), kargu ezberdinengatik, hauen artean, espioitza. Epaiketan ez zen espioitza ekintzekin zerikusirik zuen ezer frogatu. EEBBetako militar batzuk, defentsak deituta, Bostek instalazio militarrei buruz edota segurtasun nazionalaren informaziorik lortu izana ezinezkoa zela deklaratu zuten. Hau guztiarengatik, Kuban eta mundu osoan, Bostak borrokalari antiterroristak eta preso politikoak direla uste dute.